

JON ZARATE


EUSKARA INDARBERRITZEN JARRAITZEKO UNIBERTSITATEAN JORRATU BEHARREKO BIDE BERRIAK

Euskararen normalizazio bidean, etorkizuneko erronka nagusia hizkuntzaren erabilera handitzea da. Euskal gizarteko beste hainbat esparrutan bezala, unibertsitatean ere, bere jardunari dagozkion esparru guztietan euskararen erabilera handitu dadin bide berriak jorratu behar dira. Unibertsitatean, euskarak zeharlerroko rola izan dezan, aurreko estrategia egokien bidez lortutako indarguneak babestu behar dira eta ahulguneei irtenbidea emango dieten bide berriak asmatu behar dira.

Unibertsitatea euskararen biziberritze prozesuan palanka lana egin dezakeen erakunde garrantzitsuenetakoa da. Euskararen biziberritzerako erreferenteak izan behar diren erakunde,

enpresa eta gizarte eragileen zerrenda horretara, unibertsitateaz gain, euskal herri-administrazioa (udalak buru), euskal osasun-sistema (Osakidetza buru) eta arlo sozioekonomikoko enpresa handiak gehituko nituzke; gutxietsi gabe arloan arloko erakunde txikiagoen garrantzia, baina kontuan izanik erreferentzialtasunaren eta erantzukizunaren arabera bakoitzari eskatu beharrekoa.

Euskal Herriko Unibertsitateari herritarren eta gizartearen aurrean eredugarritasunez jokatzea dagokio. Irakaskuntzaren, ikerkuntzaren, ezagutzaren hedakuntzaren, zein gizarte erantzukizunaren ikuspuntuetatik begiratuta, Euskal Herriko Unibertsitateak hainbat eginkizun



ditu. Horien artean daude euskararen beharrei erantzun egokia ematea eta gizarte mailako hizkuntza-politikan zein plangintzan parte-hartze aktiboa izatea.

UPV/EHU n posible da egun ia gradu guztiak bere osotasunean euskaraz ikastea. Urtetik urtera euskaraz matrikulatzea erabakitzen duten ikasleen ehunekoak gora egiten du. Langileen gehiengoak euskaraz daki eta ia guztiak izan ahalko lirateke, gutxienez, belarriprest. Corpus linguistikoaren plangintza sendoa garatu da urteetan zehar. Egungo Euskararen erabileraren isla diren hainbat hiztegi eta corpus orokorrak zein espezializatuak sortu dira. Euskaraz eginiko doktorego tesien sustapena egiten da eta ikerketaren bidez sortzen den ezagutzaren gizarteratzea euskaraz egiten da ezagutza arlo guztietan.

Esan daiteke lau hamarkadatan zehar diseinatutako plangintzei esker, UPV/EHUk euskararen indarberritzean eta Euskal Herriko garapen soziokulturalean lidergoa lortu duela. Baina euskararen ezagutzan, corpusaren garapenean, prestigioan eta eskubideetan oinarritutako politikez gain, euskara hizkuntza instrumentala izatetik unibertsitatearen esparru guztietan naturaltasunez erabilia izatera eramango gaituzten bide berriak indartu behar dira.


Euskal Herriko Unibertsitatearen tamainako erakundeetan, estrategia berriak martxan jartzeko, egitura guztiaren egokitzapena egin behar da. Langileak prestatuta ez dauden arloetan murgildu behar dira, azpiegiturak behar berriei egokitu behar dira eta, oro har, erakundearen soziologian aurrera begira jasangarria izango den estatus berria garatu behar da. Horrek, ezinbestean, zehazten asmatuko ez nukeen gutxieneko denbora bat behar du.

Hala ere, munduko denbora guztia izanda ere, norabidea eta norantza erakutsiko diguten aurrediagnostikoa duten hizkuntza plangintza zehatzak eta ebaluagarriak behar dira. UPV/EHUko Euskararen III. Plan Gidariaren diseinuan baldintza horiek kontuan izan dira eta euskara indarberritzen jarraitzeko unibertsitatean jorratu beharreko hainbat proposamen berri adostu dira.

Egungo euskararen beharrian eta politika berrietara egokitzeko asmoz, Plan berriaren

helburu estrategikoetako bat da eguneroko kudeaketan euskararen erabilera eta presentzia handitzea. Horretarako, ebaluazioa, garapena eta aitortzea jasotzen dituen plangintza diseinatu da.

Batetik, unibertsitateko eremu ezberdinetan euskararen erabileraren egoera ezagutzeko ekimen ezberdinak jarri dira martxan. Horien adibide dira: 1) Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko V. plangintzaldiaren amaierako ebaluazioan erabilitako metodologia jarraituz,



UPV/EHUren laneko esparruan euskararen erabilerari eta presentziari buruzko neurketak; 2) Kale neurketen metodologia unibertsitateko erakundeetan, ikasgeletatik eta bulegoetatik kanpoko unibertsitate eremuetan egindako erabilera neurketak.

Bestetik, euskararen erabilera handitzeko estrategiak landu dira, batez ere lan-hizkuntza gisa. Helburu honekin lotuta berritzaileak diren zenbait ekimen adostu dira: 1) Euskararen aktibazioa bultzatzeko programa sustatu da ikastegi eta zerbitzuetan; 2) Hizkuntza-ohituretan aldaketak gerta daitezzen, estrategiak martxan jarri

dira; 3) Euskalgintzan diharduten erakundeekin elkarlanean, euskararen erabilera sustatzeko ekintzak antolatu dira.

Eta hirugarrenik, euskara kalitatearen kudeaketarako sistemetan integrazteko ekimenak diseinatu dira, adibidez, unibertsitateko ikastegiak Bikain ziurtagiria lortzeko bidean jarri dira.

Gainera, Eusko Jaurlaritzak adostutako Euskararen Agenda Estrategikoa 2017-2020 dokumentuan aipatzen diren unibertsitateekin erlazioatutako ekintzak ere aintzat hartu dira Plan berrian. Zehazki, euskarazko irakaskuntzarako euskarri diren tresna digitalen garapena bultzatu da eta wikilarien elkarrearekin batera, Wikipediarako euskarazko edukiak sortzeko programa unibertsitateko graduako irakasgaietan sartu da. Era berean, Etengabeko prestakuntzaren arloaren eta graduondoko berezko ikasketen arloaren bitartez, euskal gaien eta euskal kulturaren irakaskuntza lantzeko ekimenak garatu dira. Ekimen hauek abiapuntua izan daitezke etorkizunean graduako irakasgaietan txertatua izan daitekeen euskal kultura ardatz duen hezkuntza-proposamena garatzeko.

Aipatutako bide berri guztiak eskaintza aktiboan oinarritu behar dira. Eskaintza aktiboaren kontzeptua ondo definitzeko hainbat elementu ulertu behar dira: ekintzen sistema (erakundea), boterea, joko-arauak, aldaketa, estrategia, aktoreak, ingurunea... Azken batean, erakundearen soziologia.

Elementu horiek guztiek erakusten dute eskaintza aktiboaren praktikaren konplexutasuna. Eta aktoreen eta erakundearen arteko lotura ondo ulertzea garrantzitsua da, hau da, erakundearen soziologia ondo aztertu behar da. Era horretan jakin genezake eskaintza aktiboaren planteamendua aktoreen menpekoa den edo sistemaren menpekoa den eta, kasu bakoitzean, jarraitu beharreko estrategiarik egokiena zein den.

Bi galdera horiei erantzutea garrantzitsua da: zergatik bultzatu behar da eskaintza aktiboa euskara erakundean gehiago erabil dadin? Eta, nola bultzatu behar da eskaintza aktiboa?

Galdera horien erantzunaren bila dabil-tza hizkuntza gutxitua duten komunitateetako ikertzaileak. Ikerketa horietan, bi gauza azpimarratzen dira. Bat, norbanakoen edo sistemako aktoreen nahiak, sinesmenak eta uste sendoak aintzat hartu behar direla erakunde barruan aktoreen elkarlana sendotzeko. Eta bi, elkarlanak gizabanako bakoitzarentzat duen kostua neurtu egin behar dela aktoreak eskaintza aktiboaren helburua lortzeko bidean erre ez daitezen.

Ez nuke artikulu hau lidergoari aipamenik egin gabe amaitu nahi. Artikulu guztian zehar, orain arte modu sakonean landu ez diren bide berriez aritu naiz. Baina aspaldiko estrategietan aintzat hartzen zen euskal liderren sustapena ezinbestekoa da, egungo politiketan ere bai. Unibertsitatera datozen ikasleen liderrak irakasleak dira, unibertsitateko zerbitzuetako langileen liderrak zerbitzuburuak dira eta euskal gizartearen liderra unibertsitatea da. Beraz, hasieran esandako gizarte erantzukizunaren ikuspuntutik, unibertsitateak lidergo horri sendotasunez eta konfiantzaz heldu behar dio, epe ertain luzera ahobiziaren konpromisora heltzeko prest dauden euskal herritarrez betetako gizarte euskaldunago baten esperantzan.